

Gorka Artola Alberdik, Bergarako Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera, gaia aztertu eta ebazpena eman dut.

Alkatearen dekretu baten bitartez erabaki zen 2026eko uztailaren 5ean San Martzialgo zelaiko kantinearen eta txosnaren ustiapena arautuko duen baldintzen plegua onartzea.

Eskaera aurkezteko epearen barruan aurkeztu diren eskaeren artean gaur 08:30ean egindako zozketaren aktan jasotakoaren arabera honako hau izan da zozketaren emaitza atera diren hurrenkera

- 1- Jaiak Denontzat
- 2- Harrera elkarte
- 3- Artatse Elkarte
- 4- Gure Artera – Sare
- 5- LAB sindikatua
- 6- Bergara Aurrera

San Martzialeko kantinearen eta txosnaren ustiapenerako onartutako baldintzetan jasotakoari jarraituz eta zozketari dagokion aktan jasotakoak aintzat harturik:

ERABAKI DUT:

Lehena.- Honako talde/elkarte hauei adjudikazioa egitea deialdia arautu duen baldintzen pleguan jasotako baldintzetan:

- 1- Jaiak Denontzat txosna.
- 2- Artatse Elkarte kantina.

Biei gogoraraztea adjudikazioari uko egin nahi badie Bergarako udaleko erregistro orokorrean idatzia aurkeztuta 2026ko ekainaren 23a baino lehen egin beharko diotela. Adjudikazioa onartzen badute berriz, 375 euroko fidantza ezarri behar dute ekainaren 30eko 12:00ak baino lehen.

Bigarrena.- Itxaron zerrendan geratzen dira beste lau eskatzaileak zozketaren arabera jarraian zehazten den hurrenkerarekin:

- 1-Gure Artera – Sare
- 2-LAB sindikatua
- 3-Harrera elkarte
- 4-Bergara Aurrera

Hirugarrena.- Erabaki honen berri adjudikazio-hartzaileei, Kultura Zerbitzuari, Idazkaritzari eta Kontuhartzailetzari ematea.

Erabakiaren aurkako errekurtsuak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsua aurkez dezake, 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena):

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

- Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsuaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsuaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, Alkateak agindu eta izenpetzen du eta nik, Idazkariak, ziurtatzen dut, Bergaran, dekretuaren datan.

Alkatea
Gorka Artola Alberdi

Idazkaria
Xabin Juaristi Arrieta